

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Alkatearen eskuduntzak alkateordearen esku uztea

Alkateak, 2024ko azaroaren 22ko dekretu baten bidez, ondoko ebazpen hau eman du:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.3 artikulua harira Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 27.1 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 43., 44., 46., 47. eta 48. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, honen bitartez hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA. Sabina González Olazagoitia alkateordeari eskuordetzea indarrean dauden legeen arabera alkatearenak diren eginkizun guztiak, abenduaren 8tik 13ra, biak barne.

BIGARRENA. Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiaren azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 42. artikulua betez, alkateak hurrengo ohiko osoko bilkuran emango dio ebazpen honen berri udalbatzari, dagozkion lege ondorioak izan ditzan.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea, denek jakin dezaten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Iekora, 2024ko azaroaren 22a

Alkatea

ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA